KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, ENKARTERRIKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAN GAZTEEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO JARDUERAK KUDEATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO DENA

1-KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua da Enkarterriko gazteen euskararen erabilera sustatzeko hiru programa diseinatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzuak kontratatzea.

I. LOTEA: GAZTEEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA AISIALDIAN ETA ERA LUDIKOAN SUSTATZEKO ZERBITZUA

1. Helburu zehatzak

Enkarterriko 12 eta 18 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilera ludikoa sustatzea da helburua.

Aisialdiko eskaintza erakargarria erabiliko da gazteen motibazioa pizteko. Hau da, euskararen erabilera esperientzia positiboen bidez sustatu nahi da.

Euskara eremu formaletik atera eta aisialdia euskaraz bizitzeko aukera eskaini nahi zaie gazteei; ahozko erabilera indartuz. Izan ere, ikuspegi komunikatiboan sakonduko da, horretarako dinamika egokiak erabiliko dira.

Era berean, proiektuak bere helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea jasoko du, harreman berdinzaleak sustatzeko kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitatea edota sexu-orientazioagatiko diskriminazioak gaitzestea sustatuko du.

2.- Zerbitzuak izan behar dituen ezaugarriak

Proiektuan parte-hartze mota bi egongo dira: online formatukoa eta aurrez aurrekoa. Online bidezko tailerrean ikasitakoa praktikan jarri ahalko dute aurrez aurreko saioan. Aurrez aurreko saioak kalean izango dira; dena den, eguraldi txarra izanez gero ordezko leku bat proposatuko da.

Online saioak: 3 eta 10 minutu arteko saioak izango dira, aurrezko aurreko saioetan praktikan jarriko dutenaren aurrerapen gisa. Produktua edizio lanak barne, youtube edo istagram kanaletik zabalduko da. Bertan, tarte batean egongo dira ikusgai, behintzat, aurrez aurreko saioak amaitu arte.

Aurrez aurreko saioak: hiru orduko iraupena izango dute. Saioak gazteentzat erakargarriak diren ekintzez osatuta egongo dira, urban giroarekin loturiko kirol eta arte eskaintza konbinatuz.

Parte-hartzea mugatua izango da, eta gehienez, 30 gaztek parte hartu ahal izango dute saioetako ekintza guztietan. 10eko taldeak osatuko dira. Dena den, unean uneko egoeraren segurtasun neurrietara mugatu beharko da eskaintza.

Programa irailean-urrian gauzatuko da Enkarterriko hiru udalerritan: Balmasedan, Gueñesen (Sodupe) eta Zallan. Eta udalerri bakoitzean bi egunetan egingo dira saioak. Hau da, egun bakoitzean online saioak eta aurrez aurrekoak osatutako jarduera bat antolatuko da.

Programa asteburuko egun batean egingo da. Esleipendunak Euskara zerbitzuarekin batera adostuko du zein egunetan eta zein ordutan, udalerriaren aukeren arabera.

Aurrez aurreko saio bakoitzean 2 begirale egongo dira.

3.-Zerbitzuaren zehaztapena eta esleipendunaren betebeharrak.

-Komunikazioa:

Esleipendunak programaren izena asmatu eta bere zabalkundeaz arduratuko da. Horretarako kartela diseinatu eta inprimatuko ditu zabalkunderako beharrezkoak diren aleak. Horrekin batera, zabalkunderako iragarki edo bideo laburra sortu beharko du eta Mankomunitateak dituen baliabideak erabilita zabalkunde digitala egingo du bai kartelarena bai bideoarena. Dena den, kartelaren formatu digitala Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari ere helaraziko dio.

Esleipendunak zabalkunderako prestatzen dituen kartel edo beste bitarteko batzuk sortzean kontuan hartuko du Mankomunitatearen jarduerak direla eta erakunde publikoren batek (diputazioak, Eusko Jaurlaritzak) diruz lagun ditzakeela, beraz, programaren arabera, behar diren logoak jarri beharko ditu. Hedapen-material horretan ez da inoiz esleipendunaren logoa agertuko.

-Dinamizazioa eta garapena:

Aurrez aurreko saioetan parte hartzeko izena eman beharko da. Udalak berak kudeatuko du izen-ematea eta izena eman dutenen zerrenda enpresa esleipendunaren esku utziko du.

Saioen eskaintza anitza izan beharko da eta bertan erabili beharreko materiala enpresa esleipendunak jarriko du.

Saio bakoitzaren dinamizaziorako 2 begirale egongo dira.

Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatuko du Euskara zerbitzuarekin harremanetan egoteko.

Saioetan banatzen den material guztia euskara hutsean izango da.

4.- Programaren jarraipena:

-Programaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu enpresa esleipendunak.

-Enkarterriko Mankomunitateak informazio zehatza izan beharko du eta horretarako aldian-aldian koordinazio-bilerak egingo dira. Era berean, programa amaitu ostean balorazio txostena aurkeztuko du enpresa esleipendunak.

- Koordinazio lanak:

-Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea nahitaezkoa izango da zerbitzuaren garapenari buruzko informazioa emateko.

-Enpresa esleipendunak, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, Mankomunitatearekin harremanetan egoteko solaskidea izango da eta zuzendaritza lanak egingo ditu. Zerbitzua emango duten langileekin mantendu beharreko komunikazioa enpresak izendatutako koordinatzaile teknikoaren edo arduradunaren bidez gauzatuko da.

5.- Bitartekoak:

Zerbitzua eskaintzeko baliabide materialak eta giza baliabideak enpresa esleipendunak jarriko ditu.

Programa osoa euskaraz garatuko da, hori dela eta programari lotutako idazki guztiak euskaraz aurkeztuko dira eta euskara egoki eta zuzena erabiliko da.

Gainera, programa honetan lanean arituko diren langileek, lanak idatziz garatu behar badituzte, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara C1 tituluaren jabe izan beharko dira. Herritarrekiko ahozko harreman zuzena badute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara B2 tituluaren jabe izan beharko dira.

Kontratatutako langileek, indarrean dagoen lan-legeriak eta gizarte-segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Gainera, proiektua gauzatzeko izendatutako pertsonek programaren helbururako profil egokia dutela egiaztatu beharko dute.

Zerbitzua emango duen lan-taldea ez da aldatuko kontratuak dirauen bitartean. Dena den, ustekabeko edo ezinbesteko arrazoiengatik aldaketaren bat egin behar bada taldean sartzen den langile berriak aurrekoak zituen ezaugarri berberak eta beharrezkoa den eskarmentua egiaztatu beharko ditu. Horrelakorik gertatuz gero, Euskara zerbitzuari jakinaraziko zaio 24 ordu lehenago eta zerbitzuak aldaketa hori onartu beharko du.

Kontratatutako langileek, indarrean dagoen lan-legeriak eta gizarte-segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

II. LOTEA: EUSKAL MUSIKAKO ERREFERENTE EUSKALDUNAK ERABILITA, GAZTEEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA HARREMAN SARE EUSKALDUNAK ZABALTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

1.-Helburu zehatzak:

Enkarterriko Mankomunitateko kide diren udalerrietako ikastetxeetako DBH 3 edo 4. mailetako gazteen artean euskararen erabilera ludikoa sustatzea eta euskal kultura ezagutaraztea helburu nagusiak izanda ondorengo helburu zehatzak izango ditu proiektuak:

-Gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko euskara-gozamenarekin lotzea, euskal musika erabilita.

-Gazteei euskarazko erreferenteak eskaintzea, euskal artistak ezagutaraziz.

- Gazteen artean euskal kultura eta musika sustatzea.

-Gune desberdinetako gazteen arteko harreman sarea ehuntzea musikarekiko zaletasuna erabilita eta gazteak antolatuko diren saioetan aktiboki inplikatzea, hau da, gazteak protagonista izan daitezen bultzatzea.

-Genero berdintasunaren aldeko proposamena izatea.

2.- Zerbitzuak izan behar dituen ezaugarriak.

Zerbitzua DBHko ikasleentzako musika saio bat antolatzean datza. Beti ere, aurreko puntuan zehaztutako helburuak betez.

• Euskara Zerbitzuak DBHko ikastetxeekin eta esleipendunarekin lankidetzan egin beharreko saioak zehaztuko ditu (gehienez 3). Esleipendunak bi musika-talde (edo, bestela, talde horietako bi pertsona) eta saioa zuzenduko duen aurkezle bat kontratatu eta koordinatuko ditu. Musika taldeko kideak aukeratzeko orduan, genero ikuspegia izan beharko da kontuan eta gizon bat eta emakume bat izan beharko dira. Era berean, euskal musika mota desberdinetako musikariak hautatuko dira.

• Kontratatutako bi taldeek erreferente izan beharko dute Enkarterriko gazteentzat, ikasleen adina eta interesak kontuan hartuta.

• Esleipendunaren esku geratuko da material didaktikoa prestatzea, euskal musikaren ibilbidea ezagutzeko eta euskal musika talde berriekin harremanak izateko. Material hori ikastetxeetan erabiliko da saioaren aurre-lanketa bat egiteko eta gazteen interesa sustatzeko. Materialak gutxienez hiru orduko lanketa eta gehienez hamar ordukoa izan

beharko du. Eta enpresa esleipendunak helaraziko die ikastetxeetako arduradunei azalpen labur batek lagunduta.

• Material hori ikastetxeetako irakasleen esku jarriko da, eta eskola-orduen barruan landuko da. Halaber, jarraipena eta koordinazioa egingo da programaren ardura duten irakasleekin.

• Esleipenduna gutxienez bi hilabete lehenago hasiko da programa prestatzen.

• Saioan musikari bien abestiak modu akustikoan, zuzenean entzuteko aukera izango da, baita haien bideoklip arrakastatsuenak ikusteko aukera ere. Gazteek euren galderak egin ahalko dituzte saioan bertan edota aurretik eta esleipenduna arduratuko da gonbidatuei helarazteaz.

• Gazteek taldeka zein bakarka protagonista izateko aukera izango dute gonbidatuen abestiren bat abestuz zein instrumentuekin joz. Enpresa esleipendunak koordinatuko ditu ikasleen emanaldi hauek.

Hartzaileak:

DBH 3ko edo 4ko ikasleak izango dira, aldez aurretik ikastetxeekin adostuko da. (osasun egoerak behartuta hartzaileak alda daitezke eta Batxilergoko ikasleak izan). Gehienez 375 gazte izango dira.

Saio kopurua eta iraupena:

Gehienez ere, hiru saio egingo dira jarraian, goiz batean eta eskola orduetan. Saio bakoitzak ordubete iraungo du eta gehienez 125 parte-hartzaile bilduko dira -osasun-egoerak horretarako aukera ematen badu- saio bakoitzean.

Egutegia eta tokia:

• Zerbitzua azaroaren bukaeran edota abenduaren hasieran egingo da, Ikastetxeekin eta Euskara zerbitzuarekin aldez aurretik adostuta.

• Saioak Zalla zine-antzokian egingo dira. Dena den, osasun-egoerak behartuta adjudikatzaileak tokia aldatu ahal iznago du.

3.- Zerbitzuaren zehaztapena eta esleipendunaren betebeharrak.

Dinamizazioa eta garapena:

Esleipendunak programa egin eta kudeatu beharko du. Programa prestatu eta martxan jarriko da Euskara Zerbitzuarekin eta Enkarterriko DBHko ikastetxeekin bat etorriz.

Esleipendunak programaren proposamena osatuko du eta bertan helburuak, metodologia, beharrezko azpiegitura, programa eta egin beharreko jarduerak jasoko ditu. Metodologia dinamikoa eta ahalik eta praktikoena izan beharko da.

Programa abian jartzeko bilerak egin beharko dira jardueraren xehetasun guztiak adosteko (musikarien hautaketa, saioaren egitura, kronograma, material osagarriaren lanketa…)

Saioan banatuko den material guztia euskara hutsez egongo da.

Komunikazioa:

Esleipendunak programaren zabalkundeaz arduratuko da. Horretarako kartela diseinatu eta inprimatuko du beharrezkoa bada eta prentsa ohar elebiduna prestatuko du. Horien zabalkundea Mankomunitateak dituen baliabideak erabilita egingo du. Dena den, kartelaren formatu digitala Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari helaraziko dio.

Esleipendunak zabalkunderako prestatzen dituen kartel edo beste bitarteko batzuk sortzean kontuan hartuko du Mankomunitatearen jarduerak direla eta erakunde publikoren batek (diputazioak, Eusko Jaurlaritzak) diruz lagun ditzakeela, beraz, programaren arabera, behar diren logoak jarri beharko ditu. Hedapen-material horretan ez da inoiz esleipendunaren logoa agertuko.

Saioa egin ostean, esleipendunak prentsa ohar elebiduna prestatuko du eta Euskara zerbitzuari bidaliko dio.

Saioan argazkiak egingo dira, parte-hartzaileen baimena eskatu ondoren, eta mankomunitatearen esku jarriko dira.

Esleipendunak sortutako komunikazio-elementu guztietan hizkera eta irudiak ez dira modu sexistan erabiliko.

Esleipendunak jarriko ditu programak behar bezala garatzeko behar diren materialak eta baliabideak, eta ez dute inolako kosturik izango Mankomunitatearentzat.

4.-Programaren kontrola eta jarraipena

-Programaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu enpresa esleipendunak.

-Enkarterriko Mankomunitateak informazio zehatza izan beharko du eta horretarako aldian-aldian koordinazio-bilerak egingo dira. Era berean, programa amaitu ostean paperean eta formatu digitalean balorazio txostena aurkeztuko du enpresa esleipendunak, baita saio bakoitzaren argazkiak ere.

Txosten horretan ikastetxeek saioen kalitateari, azpiegituren egokitasunari, landutako materialaren kalitateari eta abarri buruz egindako balorazioak ere sartu beharko dira.

Atal honetan aipatzen diren agiriak aurkezteko gehieneko epea: hilabete, saioak egiten direnetik kontatzen hasita.

- Koordinazio lanak:

-Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea nahitaezkoa izango da zerbitzuaren garapenari buruzko informazioa emateko. Horretarako behintzat bi bilera antolatuko dira eta bertan ere lanaren ebaluazioa egingo da.

-Enpresa esleipendunak, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, Mankomunitatearekin harremanetan egoteko solaskidea izango da eta zuzendaritza lanak egingo ditu. Zerbitzua emango duten langileekin izan beharreko komunikazioa esleipendunak izendatutako koordinatzaile teknikoaren edo arduradunaren bidez gauzatuko da.

5.- Bitartekoak:

Zerbitzua eskaintzeko baliabide materialak eta giza baliabideak enpresa esleipendunak jarriko ditu.

Programa osoa euskaraz garatuko da, hori dela eta programari lotutako idazki guztiak euskaraz aurkeztuko dira eta euskara egoki eta zuzena erabiliko da.

Gainera, programa honetan lanean arituko diren langileek, lanak idatziz garatu behar badituzte, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara C1 titulua edo baliokideren bat (48/2009 Dekretua, Europako Erreferentzia Esparru Bateratura egokitzekoa) dutela egiaztatuko dute. Herritarrekiko ahozko harreman zuzena badute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara B2 titulua edo baliokideren bat (48/2009 Dekretua, Europako Erreferentzia Esparru Bateratura egokitzekoa) dutela egiaztatuko dute.

Kontratatutako langileek, indarrean dagoen lan-legeriak eta gizarte-segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Gainera, proiektua gauzatzeko izendatutako pertsonek programaren helbururako profil egokia dutela egiaztatu beharko dute.

Zerbitzua emango duen lan-taldea ez da aldatuko kontratuak dirauen bitartean. Dena den, ustekabeko edo ezinbesteko arrazoiengatik aldaketaren bat egin behar bada taldean sartzen den langile berriak aurrekoak zituen ezaugarri berberak eta beharrezkoa den eskarmentua egiaztatu beharko ditu. Horrelakorik gertatuz gero, Euskara zerbitzuari jakinaraziko zaio 24 ordu lehenago eta zerbitzuak aldaketa hori onartu beharko du.

Kontratatutako langileek, indarrean dagoen lan-legeriak eta gizarte-segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

III. LOTEA: GAZTEEK EUSKARA GEHIAGO ERABIL DEZATEN EUREN MOTIBAZIOAN ERAGITEKO SAIOAK ETA EUREN INGURU HURBILEAN AKTIBOKI ERAGITEKO ESTRATEGIAK IRAKASTEKO TOPAKETA ANTOLATZEKO ZERBITZUA.

1.-Helburu zehatzak:

Motibazio saioen bidez gazteek euskararen erabilerari buruz hausnartzea eta euren hizkuntzaren aldeko jarrera indartzea lortu nahi da.

Gazteek egunero hitz egiten dutenean egiten dituzten hizkuntza hautaketak eta izaten dituzten hizkuntza jarrerak zeintzuk diren ikusi eta horiek duten eraginaz hausnartzea.

Euskara hizkuntza erabilgarri gisa aurkeztea.

Euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea.

Motibazioan eragin ostean, euskara eragile izan daitezkeen gazteen arteko sarea sortzeko xedez, elkarren arteko harremana bultzatzea.

Euskara batzordeak sortzeko ahalegina egitea. Horretarako kideak formatuko dira eta baliabideak eskainiko zaizkie, haien inguruan euskararen normalizazioan eragin dezaten.

2.- Zerbitzuak izan behar dituen ezaugarriak:

<u>Saioak:</u>

Euskararen erabilera sustatzeko motibazio saioak eskainiko dira Enkarterriko Mankomunitateko kideak diren udalerrietako 5 ikastetxetan: San Viator (Sopuerta), Balmaseda BHI eta Zubi Zahar ikastola (Balmaseda), Eretza Berri IPI (sodupe) eta Zalla BHI (Zalla) 2021-2022 ikasturtean. Zerbitzua 2022-2023 ikasturtera luzatuz gero, aldaketak egon daitezke eta saioak ikastetxe desberdinetan eman, beti ere saioen kopuru berari eutsita.

Saioek ordu biko iraupena izango dute eta tailer praktikoak eta dinamikoak izango dira; gazteen parte-hartze aktiboa sustatuz. Saioak klase orduetan emango dira, DBH 3 edota 4ko mailetan. Saio bakarra emango da hautatzen den mailako ikasle talde bakoitzean eta dinamizatzaile bat arduratuko da saioa aurrera eramateaz.

Saioetan, euskara erabiltzeak edo ez beraiengan, beraien inguruan eta gizartean duen eraginaz eta hizkuntzari lotutako bestelako gaiez hausnartuko dute; motibazio

kontziente bat lantzeko asmoz. Eta bide batez, dinamizatzaileak euskara gehiago erabil dezaten motibatuko ditu gazteak.

Horretarako honelako edukiak landuko dituzte:

- Euskararen egoera ezagutu (datuak aurkeztu bai Euskal Herrikoak bai eskualdekoak edo euren udalerrikoak)
- Norberaren ibilbide linguistikoaren azterketa
- Euskara erabiltzeko dituzten zailtasunak identifikatu
- Euskara gehiago erabiltzeko motibatu eta proposamenak aurkeztu.

Parte-hartzaileak: DBHko 3 edo 4. mailetako ikasle euskaldunak izango dira. Ikastetxeek Euskara zerbitzuarekin batera erabakiko dute zein mailetan emango diren saioak.

Topaketa:

Saioetan parte hartu duten gazteen artean topaketaren berri emango da eta bertan parte hartzeko aukera eskainiko zaie. Horiei ez ezik ikastetxeko beste batzuei ere eskaini ahalko zaie. Horretarako enpresa esleipenduna ikastetxeekin jarriko da harremanetan eta zabalkundea zelan egin adostuko dute. Izen-ematea ikastetxearen esku geratuko da. Euskara zerbitzuak horri buruzko informazioa izango du une oro.

Topaketan gehienez, 60 gaztek hartuko dute parte. Aste egun batean egingo da eskola orduetan; 6 orduko iraupena izango du. Ikasleak euren ikastetxera joan eta hortik arduradun bat edo birekin abiatuko dira topaketa egingo den gunera.

Topaketan ikastetxe desberdinetako gazteak nahastuko dira elkar ezagut dezaten eta euskaldunen arteko sareak zabaltzeko. Topaketak alderdi teorikoa eta praktikoa izango ditu, hau da, batetik, oinarrizko ezagutza teorikoa landuko da eta, bestetik, plangintza eraginkor bat egiten jakiteko tresnak eta teknikak. Enpresa esleipendunak parte-hartze aktiboa eta estrategia ludikoak bultzatzen dituen proposamena aurkeztu beharko du.

Topaketaren zehetasun guztiak Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxeekin batera adostuko dira.

3.- Zerbitzuaren zehaztapena eta esleipendunaren betebeharrak.

Dinamizazioa eta garapena:

Esleipendunak egitasmo osoa (saioak eta topaketa) egin eta kudeatu beharko du. Egitasmoa prestatu eta abian jarriko da Euskara Zerbitzuarekin eta Enkarterriko DBHko ikastetxeekin bat etorriz.

Esleipendunak programaren proposamena osatuko du eta bertan helburuak, metodologia eta beharrezko azpiegitura jasoko ditu. Metodologia dinamikoa eta ahalik eta praktikoena izan beharko da eta gazteen parte-hartze aktiboa sustatuko du.

Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatuko du Euskara zerbitzuarekin harremanetan egoteko eta saioak eta topaketa abian jartzeko behar diren xehetasun guztiak adosteko (ikastetxeen kontaktuak, ordutegiak, saioen kronograma, topaketaren lekua, zabalkundea, izen-ematearen irizpideak …)

Euskara Zerbitzuak ikastetxeen kontaktuak emango dizkio enpresa esleipendunari eta esleipenduna arduratuko da ikastetxeekin batera saioen egutegia eta ordutegia zehazteko baita topaketaren zabalkundeaz eta izen-emateko irizpideak zehazteko ere.

Saioetan eta topaketan banatuko den material guztia euskara hutsez egongo da.

Esleipendunak jarriko ditu programak behar bezala garatzeko behar diren materialak eta baliabideak, eta ez dute inolako kosturik izango Mankomunitatearentzat.

Saioak bukatu ostean hilabeteko epea dauka esleipendunak memoria egiteko eta Euskara zerbitzuari aurkezteko. Bertan, enpresaren balorazio orokorraz gain, ikastetxe bakoitzeko balorazioa baita ikasleena ere jasoko da. Gauza bera egingo du topaketarekin.

<u>Komunikazioa:</u>

Esleipendunak programaren zabalkundeaz arduratuko da. Horretarako Topaketaren kartela diseinatu eta inprimatuko du beharrezkoa bada eta prentsa ohar elebiduna prestatuko du. Horien zabalkundea Mankomunitateak dituen baliabideak erabilita egingo du. Dena den, kartelaren formatu digitala Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari helaraziko dio.

Esleipendunak zabalkunderako prestatzen dituen kartel edo beste bitarteko batzuk sortzean kontuan hartuko du Mankomunitatearen jarduerak direla eta erakunde publikoren batek (diputazioak, Eusko Jaurlaritzak) diruz lagun ditzakeela, beraz, programaren arabera, behar diren logoak jarri beharko ditu. Hedapen-material horretan ez da inoiz esleipendunaren logoa agertuko.

Topaketa egin ostean, esleipendunak prentsa ohar elebiduna prestatuko du eta Euskara zerbitzuari bidaliko dio.

Topaketan argazkiak egingo dira, parte-hartzaileen baimena eskatu ondoren, eta mankomunitatearen esku jarriko dira.

Esleipendunak sortutako komunikazio-elementu guztietan hizkera eta irudiak ez dira modu sexistan erabiliko.

4.-Programaren kontrola eta jarraipena

-Programaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu enpresa esleipendunak.

-Enkarterriko Mankomunitateak informazio zehatza izan beharko du eta horretarako aldian-aldian koordinazio-bilerak egingo dira. Era berean, programa osoa (saioak eta topaketa) amaitu ostean paperean eta formatu digitalean balorazio jarduera bakoitzeko (saioak, alde batetik, eta topaketa, bestetik) txostena aurkeztuko du enpresa esleipendunak, baita saioetan eta topaketan egindako argazkiak ere. Argazkiak ateratzeko, esleipendunak baimena eskatu beharko die parte-hartzaileei.

Txosten horretan ikastetxeek saioen eta topaketaren kalitateari, azpiegituren egokitasunari, landutako materialaren kalitateari eta abarri buruz egindako balorazioak ere sartu beharko dira.

Atal honetan aipatzen diren agiriak aurkezteko gehieneko epea: hilabetea, jarduera bakoitza (saioak/topaketa) bukatzen denetik kontatzen hasita.

- Koordinazio lanak:

-Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea nahitaezkoa izango da zerbitzuaren garapenari buruzko informazioa emateko.

-Enpresa esleipendunak, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, Mankomunitatearekin harremanetan egoteko solaskidea izango da eta zuzendaritza lanak egingo ditu. Zerbitzua emango duten langileekin mantendu beharreko komunikazioa enpresak izendatutako koordinatzaile teknikoaren edo arduradunaren bidez gauzatuko da.

6.- Bitartekoak:

Zerbitzua eskaintzeko baliabide materialak eta giza baliabideak enpresa esleipendunak jarriko ditu.

Programa osoa euskaraz garatuko da, eta jasotzaileak gazte euskaldunak izango dira; hori dela eta, programari lotutako idazki guztiak euskaraz aurkeztuko dira eta euskara egoki eta zuzena erabiliko da.

Gainera, programa honetan lanean arituko diren langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara C1 titulua edo baliokideren bat (48/2009 Dekretua, Europako Erreferentzia Esparru Bateratura egokitzekoa) dutela egiaztatuko dute.

Kontratatutako langileek, indarrean dagoen lan-legeriak eta gizarte-segurantzak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Gainera, proiektua gauzatzeko izendatutako pertsonek programaren helbururako profil egokia dutela egiaztatu beharko dute.

Zerbitzua emango duen lan-taldea ez da aldatuko kontratuak dirauen bitartean. Dena den, ustekabeko edo ezinbesteko arrazoiengatik aldaketaren bat egin behar bada taldean sartzen den langile berriak aurrekoak zituen ezaugarri berberak eta

beharrezkoa den eskarmentua egiaztatu beharko ditu. Horrelakorik gertatuz gero, Euskara zerbitzuari jakinaraziko zaio 24 ordu lehenago eta zerbitzuak aldaketa hori onartu beharko du.

LOTE GUZTIETARAKO BALDINTZA OROKORRAK

1.-EGITASMOAREN PLANA

Esleipendunek lan-programa bat aurkeztu beharko dute lote eta jarduera bakoitzeko, baldintza-agiri honetan deskribatutakoari egokitua. Bertan deskribaturiko jarduera bakoitza gauzatzeko egoki deritzoten alderdi osagarri guztiak jasoko dira baita proiektu bakoitza gauzatzeko eskainitako giza baliabideen antolaketa eta egin beharreko zereginak ere. Hortaz, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dira:

-Proiektuaren helburuak
-Landuko den edukia: Mankomunitateko Euskara Plan estrategikoan oinarrituta egongo da.
-Metodologia: ezarriko den metodologia oso dinamikoa eta ahalik eta praktikoena izan beharko da.
- Faseen eta zereginen deskribapen zehatza.
- Fase bakoitzean Euskara Zerbitzuari eman behar dizkioten emaitzak eta produktuak.
- Jardueren kronograma.
- Proposatutako lantaldearen organigrama, kide bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak zehaztuta, lanbide-kategoriaren arabera, eta curriculum vitaearen ekarpena eginda. Atal honetan, profesional horiek zerbitzua euskaraz emateko duten gaitasuna nabarmendu beharko da.
- Proiektuaren jarraipenerako, kontrolerako eta kalitaterako mekanismoak

Egitasmoak gauzatzeko beharrezkoa den materiala prestatzeko ardura esleipendunak hartuko du bere gain, bai programa gauzatzeko beharrezkoa dena, bai bertaratutakoei emateko dena. Materialaren edukiaz, diseinuaz eta maketazioaz arduratu beharko du esleipendunak. Material hori eskuragarri egon beharko du jarduera hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak azter dezan. Izan ere, Euskara Zerbitzuak aldaketak proposatu ahal izango ditu, jardueraren helbururako proposatutako materiala osatugabea edo desegokia dela uste badu.

<u>Planifikazioa eta antolaketa:</u>

Enkarterriko Mankomunitateak lizitazio honen xede diren zerbitzuak ikuskatu eta horien jarraipena egingo du uneoro.

Jarraipen-bilerak egingo dira eta esleipendunek jarduera bakoitzaren garapenaren txostenak aurkeztu beharko dituzte gutxienez, honako hauek identifikatuta: zer fasetan dagoen, balorazioa eta, beharrezkoa balitz, edukiak hobetzeko edo egokitzeko neurriak planteatzen diren beharren arabera.

2.- BETEBEHAR OROKORRAK

Behin kontratua esleituta, esleipenduna Euskara Zerbitzuarekin elkartuko beharko da egitasmoak antolatzeko, eta mankomunitateak beti izango du programa horietan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko aukera.

Euskara Zerbitzuko teknikariek aurkeztuko diote programa dagokion entitateari (institutua, eskolak, etab.), behar bezala antolatzeko, eta esleipendunari jakinaraziko dizkiote koordinazio horren emaitzak. Kontaktu horren ondoren, esleipendunak koordinatuko da dagokion pertsonarekin jarduera abian jartzeko (datak, taldeak..). Esleipendunak eta zentroek adosten duten guztia Euskara Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, eta horrek onartuko ditu proposatutako jarduerak.

Jarduera bakoitzaren proiektu bat aurkeztuko da, eta bertan, landu beharreko helburuak, erabiliko den metodologia eta irakatsi beharreko ezagutzak deskribatuko dira.

Jarduera egin ondoren, datuak sexuaren arabera bereizita bilduko dira jarduera bakoitzean egingo diren gogobetetze-galdetegietan. Irizpide hori kontuan hartuko da amaierako memoriak egiterakoan. Memoria horiek, nahitaez, programa bakoitza amaitu ondoren helaraziko zaizkio Euskara Zerbitzuari.

Mankomunitatea arduratuko da aretoak, kultura-gelak edo lokalak erreserbatzeaz.

Esleipendunak sortutako komunikazio-elementu guztietan hizkuntza eta irudiak ez dira modu sexistan erabiliko.

Esleipendunak jarriko ditu programak behar bezala garatzeko behar diren materialak eta baliabideak, eta ez dute inolako kosturik izango Mankomunitatearentzat. Zabalkundea, kartelen edo beste bitarteko batzuen bidez egin behar bada, esleipenduna izango da arduraduna. Betiere, kontuan hartuta Mankomunitatearen jarduerak direla eta erakunderen batek diruz lagun ditzakeela. Programaren arabera, beharrezko logotipoak sartu beharko dira. Inola ere ez da agertuko esleipendunaren logotipoa hedapen-material horretan.

3.- LAN TALDEAREN OSAKETA

Zerbitzuak gauzatzeko kontratu bakoitza formalizatu ondoren lanean hasiko den giza taldea esleipendunak proposatutako eskaintza teknikoan zerrendatutako kideek osatu beharko dute.

Esleipenaren ondoren ikusten bada egitasmo bakoitzaren lan-taldea ez datorrela bat eskaintza teknikoan proposatutakoarekin:

- Esleipendunak aldaketa eragin duen arrazoia azaltzen duen justifikazio idatzia, zehatza eta nahikoa aurkezten badu, honako hau egingo da:

 Esleipendunak aurkeztuko dituen hautagaiek ordeztu nahi den pertsonak duen kualifikazio tekniko bera edo handiagoa izango dute.
 Euskara Zerbitzuak onartu beharko du hautagaietako bat.

- Aldaketa arrazoi justifikatu batengatik ez dela egin frogatzen bada, hau da, ezinbesteko kasu batengatik eta esleipendunari egotzi ezin zaionagatik; Mankomunitateak eskubidea izango du ordezkoak onartzeko ala ez erabakitzeko baita kontratua suntsiarazteko ere; beti ere aldaketa hori esleipenerako erabakigarria izan bada.

Jarduerak egiten dituzten pertsonen produktibitatearen eta lanen kalitatearen azken balorazioa Euskara Zerbitzuari dagokio, eta hark eska dezake lantaldeko edozein kide aldatzea, hamabost egun lehenago jakinarazita kategoria bereko beste batekin, baldin eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

Langileek indarreko lan-legeriak eta Gizarte Segurantzak legez eskatutako baldintzak bete beharko dituzte. 26/2015 Legeak aldatutako Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, esleipendunek adingabeekin lan egingo duten langile guztien Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko dituzte.

4.-ZEHAR LERROAK:

Zehar lerroak kontratatutako zerbitzuak garatu eta sustatuko dituen jarduera guztietan presente egon behar duten lan-ildoak dira:

A) Euskara. Kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarri espezifikoak direla eta (edukia euskaraz eta jasotzaileak euskaldunak izango dira), kontratua euskaraz gauzatu behar da.

Beraz, programatutako jarduera guztiak euskara hutsean egingo dira. Horretarako, beharrezko baldintza guztiak bermatuko dira.

Era berean, kontratuaren xede diren idatzizko guztiak, informazio-zirkularrak, edota beste era bateko lanak eta Euskara Zerbitzuari eman behar zaizkionak, edota jendaurrean jarriko direnak euskaraz egingo dira.

B) Berdintasuna. Genero-ikuspegia programa guztietan sartuko da, hau da, modu sistematikoan hartuko dira kontuan emakumeen eta gizonen beharrizanak, eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak txertatuko dira maila guztietan eta programen plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.

Bestalde, egitasmoen zehar ekoizten diren dokumentu, bideo eta ikuskizunetan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

C) Inklusioa. Gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta aniztasunari erantzungo zaio.

Ikuspegi integratzaile batetik lan egiteak esan nahi du arreta berezia eskaini behar zaiela bazterketa-arrisku erreala agerian uzten duten askotariko adierazleak erakusten dituzten pertsonen eskaerei eta beharrei.